

ERREGIAK 2015

2015eko abenduaren 4an, Eskolan, aurtengo Olentzeroren etorrera eguna antolatzeko bilera egin dugu. Honakoak elkartu gara: Belen Aldanondo, Arantzazu Rodas, Iñigo Ayerza, Oihane Vergara, Rosa Aurkia, Nagore Lizardi, Marijo, Maribi Plazaola, Igone Saldias, Ines, Miren Belaunzaran, Aloña Izagirre eta Erlantz Allur.

Honako programa adostu dugu Errege egunerako:

17:00 – 19.00: Opari bilketa Urrutin.

19:00: Kabalgataren hasiera: ohiko ibilbidea egingo dute. Trafiko mozketaz Iñigo arduratuko da. Tratorea Azpillakoa izango da (Iñigok hitz egingo du). Gurdia ere Iñigoren kontu.

20:00: Opari banaketa.

20 paje behar dira. Hauek bilatzeaz Arantzazu Rodas eta Oihane Vergara arduratuko dira; Mirenek bere prestutasuna erakutsi du paje izateko.

Pajeen arropak ongi dauden ikusi behar da. Zerbait faltako balitz, Udalak erosiko du. Garbiketa lanetaz ere Udala arduratuko da. Antortzak Udalak erosiko ditu.

Meltxor (Mikel Belaunzaran), Gaspar (Alduntzin) eta Baltaxar (Joxemiel)-ekin Rosa eta Marijok hitz egingo dute.

Zaldiak Lazkaotik ekarriko dira eta eskaera Udalak egingo du. Bestalde, kabalgatan zehar, zaldi hauek zuzentzeko: Alain, Aitor, Lesmes...

Jaiotza: katekesian dabilzanek osatzen dute. Xabi apaizarekin hitz egingo du Beatriz Berakoetxeak.

Zozketa: Bittorirekin hitz egingo du Iñigo Ayerzak.

Musika: Soniak jarriko du eta aurkezle lanak egiteko proposamena egingo zaio.